

## **Yohimbina erabili da elikagai-osagarrietan.**

**Oharra:** elikagai-osagarrietan *yohimbe* landarea erabili dutela atzeman da, landare horrek yohimbina printzipio aktiboa du bere osaeran.

**Zer den:** yohimbe hosto iraunkorreko zuhaitz baten izena da; Zairen, Kamerunen eta Gabonen topatuko dugu.

**Deskribatu diren ondorio kaltegarriak:** nerbio sistema zentraleko arazoak, narritakortasuna, insomnioa, urduritasuna, dardara, bertigoa, migraina, digestio-asaldurak, hala nola oka eta beherakoa, eta asaldura kardiobaskularrak, esaterako, takikardia. Beste medikamentu batzuekin interkazioak dituela ere deskribatu da, esaterako, clonidinarekin eta hipertentsiboekin.

**Beste izen batzuk:** 11-hydroxy Yohimbine, Alpha Yohimbine HCl, Corynanthe Yohimbe, Corynanthe Johimbe, Corynanthe johimbi, Corynanthe yohimbi, Johimbi, Pausinystalia yohimbe, Pausinystalia johimbe, Yohimbehe, Yohimbehe Cortex, Yohimbine, Yohimbine HCl, Yohimbinum Muriaticum.

**Gomendioa:** ez kontsumitu osaeran *yohimbea* duen osagarririk edo dietetikorik. Oro har, ez erosi produkturik seguruak ez diren merkaturatze-kanalen bidez. Galdetu zure medikuari zer elikagai-osagarri erabil dezakezun.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 17a.